

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

GASTEIZKO ESQUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

Eratzea Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea, 2019ko apirilaren 28ko hauteskunde orokorretarako

EDIKTUA

Hauteskunde araubide orokorra arautzen duen lege organikoak xedatutakoarekin bat etorritik, eta Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak (martxoaren 4ko 129/2019 ED) 2019ko apirilaren 28rako deitu direnez, 2019ko martxoaren 8an Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea eratu da, eta batzordeak kide hauek izango ditu:

– María Belén González Martín andrea, Gasteizko lehen auzialdiko 4 zenbakiko epaitegiko epailea.

– Susana Junquera Bajo, Gasteizko instrukzioko 1 zenbakiko epaitegiko magistratu eta epailea.

– María Jiménez Ramírez, Gasteizko Lehen Auzialdiko 3 zenbakiko epaitegiko magistratu eta epailea.

– Hauteskunde Batzordeko idazkari lanetan, María Teresa Quintanilla García, lehen auzialdiko 5. zenbakiko ZLUP zibileko justizia administrazioako legelari, Gasteizko epaitegi dekanoko legelari lanetan.

Aipatutako legeak 14.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen buru María Belén González Martín andrea aukeratu zen, Gasteizko lehen auzialdiko 4 zenbakiko epaitegiko magistratu eta epailea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 8a

Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde batzordeburua
MARÍA TERESA QUINTANILLA GARCÍA